



Eruki-mendiak Beartsuen Onerako



rugafendarak lafutzalen eskuetatik iges egiteko artu zizutzen bideak itxirik ikusi genitun lengoan.

Juduak indafa artu zuten. Nai zuten artzeko gogorpean beartsua beti beren mendeko izateko eran gelditzen zan. Jean Chalons'tafak Frantzian askatzeko bide beñiak ebaki nai izan zituen XIV-gaŕen mendean; Migel Northbourg, Londres'ko Gotzaiak orde-etxea (casa de préstamos) 1361'an sortu zuan; beartsuentzat ordain ezerezekoan, baño bizirik etzuen izan. (1)

Eun urte geroago Prantziskafak agertzen zaizkigu beñi Italian lanbide ortan. Ortarako Eruki-Mendiak deritzaien etxeak sortu beaŕean asi ziran. Oraingoan Irugafendafentzat bakafik ez baño, kristau guztientzat.

Wadingo'k Terni'ko Bernaba A. dakar bide beñi onen asmatzaletako. Baño oker dago. Arcevia'ko *Artxiboan*, Marka'ko Probintzian, Eruki-mendiak sortzeko asmotan efi artako Buruak nola ibili ziran adierazten zaigu 1428'an. Baño efi ortan 1483'eraño etzan sortu; ta orduan Montegallo'ko Markos A. Zoriontsuak.

(1) Sail au ikusi *Ludovic de Besse*.—Le Bienhereux Bernardin de Feltre et son oeuvre.

Perusa'n ordea, Milan'go Migel A. Prantziskafak lan asko egin ondoren, 1462'ean sortu zan. Aita Santuaren Ordezkarriak etzuen ontzat eman; baño Aita Santuak berak bai ordea. Bernardino A'k asko lagundu zion; Terni'ko Bernabe A'k befiz zabaltzen lagundu zuan asko.

Aberatsak ukar edo limosnetako ugari ematen zuten; diru auei eskefak etxe oiek ordaindu-bear ufian dirua auferatu zezaketen. Ordaindubear txiki ori ere askok begi gaiztoz ikusiko zutela A. Ternik igafi zion. Eta Coppoli'ko Fortunato, lege-gizon jakintsuarekin itzegin zuan. Jaun au Aita Santu berari askotan aolkua (konsejua) ematera deitua zan. Aita onek eginbide aren erdi-baztafak, on eta txafak aztertutrik, ontzat eman zuan. Beste jakintsu batza bati ere galde egin zion; arek ere egin zitekela erabaki zuan.

Orduan Terni A'k eta beste Prantziskar guziak efiari begiak zabaldu zizkieten. Eta baita beartsuei aixagafi polita ere! Bertatik asi ziran Italia osoan zabaltzen.

Beartsuei batzuetan ordezko utsean; eta geienean ordaindu-bear txikitxoaz auferatzen zitzairen. Judu, heartsuaren larutzale gogorren eskuetatik iges egin naiez XV-gararen mendearen bukaerarako Italia'ko uri (ziudade) guzietan Efuki-Mendi etxeak lan egiten zuten.

Efuki-Mendien zabaltzaierik sutsuenetan bi Zoriontsu arkitzen ditugu: Feltre'ko Bernardino A. eta Montegallo'ko Marko A. Perusa'ko Efuki-Mendiaren araudia (estatutoak) onek egin zuen, Padua'koa befik aurrekoak.

Ortik Padua'ko Eri-etxeak edo Udal-etxeak debekua jafi zuen ango bizi-lagunentzako, andik landarako ifongo etxetan artu-emanik egiteko.



Prantziskafak Efuki-Mendi oien bidez, eriko oiturak garbitzera jotzen zuten eta ori bilatzen zuten. Kristauak juduen eskuetan aien mendeko etzitezen izan; eta judu berak Efuki-Mendien bidez beren zikoizkerian etzitezen ase ta bete. Oien eskuetan lenik erortzen ziranak gudu-gizonak (soldaduak) eta ikasleak zirialako, Efuki-mendietan efaizenik eta geienik aiei laguntzen zitzairen.

Zuzentasunaren ondoren, Bernardino Zoriontsuak *erukitasuna* za-

baltzera jo zuan. Efuki-Mendiak indar artzean, Efukitasunezko etxeak goratzera ta aiei laguntzera itzuli ziran. Azkenean Efuki-Mendiak iraupena izateko, Elizaren eta efietako Buruzagien menpean jafi



Ama-Birgiña Sortzez Garbia

zitian. Oiek biak beren ordezeko batzuek jartzen zituzten, ekintza oñen ikertzaile (ikustale) naiz liburuetan, naiz dirukutxetan izateko.

Ekintza onek etsai asko, juduekin batean izan zituen; bano azkenean X-gaŕen Leon Aita Santuak Efuki-mendiak ontzat eman zituan 1515'ean. Bere agirian Aita Santuak esaten zuan. «Efuki-Mendietan okerkeriaren kutsu txikienik etzala agertzen.» Alaxe erabaki zuan Lateran'go Eliz-Batzaŕe Nagusiak boskaren buruan, X-gaŕen Bileran (Concil. Later. V. Sess. X.)

Laxter Aita Santuak berak Efoman ere alako Efuki-Mendiak ipiñi zituzten. Gotzai befiak sortzean, berotek izentaz-

tzeko agirietan, Efuki-Mendiak Eliza-baŕutietan sortzeko agindua ezipazan ere, gogoia adierazten zitzairen.

Onela Prantziskak sortu zuten beartsuen aldeko ekintzak, edozein efialdetako lufetan lufa artu zuan edo bere adar befiak eta emaitza (frutu) zitu ugariak zabaldu zituan.

Oña, ba Elizak garai guzietan beartsuen alde zenbat egin duan; berofen etsaiak bestela itzegiten ba'dute ere.

1790-gaŕen urtean Italian ba-ziran zazpireun eta berogei ta amairu Efuki-Mendi.

Efuki-Mendietatik Nekazari-kutxak sortu ziran. Nekazariei diruz landara, azi onak eta ongafi egokiak eskuratzeko ta bizibidea efaztuzeko. Guztia Elizaren bitartez. 1853'ean, Italian MILLA BEDE-RATZIREUN ETA EMERETZI Nekazari-kutxa ba-ziran. Brinbis'koa aipatuena.

Leon XIII-gaŕenaganaño ofatx Elizak beartsuen alde egin zuen lana. Onek egin zuenaz ufengoan itzegingo dizugu.

Intzar Damaso An.

VERBA MEA AURIBUS PERCIPE, DOMINE

(V'GAËN SALMUA)

David-ek egindako salmua. Efege sandu afek Yainkoari zuzentzen dion otoitz ortan, Yainkoak gaizkiari ta gaizki-egile guziai dioten gofotia gogoratu ondoan, eskatzen dio Yainkoari bere etsaiak galdu ditzan beren gaixtake rienga tik, ofela gero yende zintzoak poztu ditezten.

Nere eleak adi itzatzu,
Yauna, zuri bainagotzu;
nere barneko asperenari
afen! gogo-emaiozu.

Zu nere efege ta nausi,
nere Yainko zeran ori;
otoil ez izan entzun-gogofa
nere dei-oiu miñari.

Zuri nagotzu afenez
beti gauzez ta egunez;
goizean goizik nere eskaria
entzuten duzu gogo onez.

Goizean goiz zure etxera
banator zure aufera;
nere otoitza eskeintzen dizut,
egoten nauzu begira.

Etzera zu, tzarkeria
atsegin duen Yainkoa;
zure ondoan ezin daiteke
iñola bizi gaixtoa.

Ezin dagoke txutirik
zure afean gaizkiñik;
oben-egile aidur guziak
iguin dituzu gogotik.

Gezuefz mintzo diranak
galtzen ditu gure Yaunak;
Yahwek biziro gaitzesten ditu
odol ta iruzur-zaleak.

Ni befiz zure erukian
agertzen naiz zure etxean,

zure beldufez apal gurtzen naiz
zure yauregi sanduan.

Yauna, zure zuzenbidez,
bide legun ta berdiñez
zuk narozu, eror ez nadin
nere yazarleon aurkez.

Beren agoan ezpaita
zintasunik, bai gezufa;
beren biotza galdua da ta
mia lausenguz ari da.

Beren eztari-lezea
iñobi zabaldu bat da.
Isun itzatzu eruki gabe
beren obenan araura!

Ustel atera bitezi
beren amafuak beti;
zuri etaso dizutelako,
iraul zatzu ta egotzi.

Zugan abaro daudenak
alaituko dira denak;
egun ta beti poztuko dira
zu baitan uste dutenak.

Zuk estaliko dituzu
zere egapean artatsu,
ta zure izena maite dutenak
poztuko dira gogotsu.

Zuk baituzu, Yahwe Yauna,
onesten gizon zuzena;
zure onginaiz esitzen duzu
mazmafo batez bezela.

Iraizoz-ko Polikarpo A.

ITZ GUTXI-EZAGUNAK

Elea=itza, esana. Afena=otoitza, eskaria. Aidur=gaixto, biuri, oker. Isundu=(multa eman), kastigatu. Abaro egon=estalpean egon. Mazmafo=efe-dola (escudo). Zintasun=egia-zaletasun, egia.



Sendoya

ONTASUN BIKAIN-MAITIA ¿ARKITU NAI?

(GAZTETXOENTZAT)



Bizi bideaz beriz ere?..

GAZTETXO laztanak, alaxe natorkizue zerbait geixiago azaldu naiean: nai badezute ezpadezute bide gurutzean arkituko bai zerate.

Etorkizun ona izateko Jaunak eratutako bide-tik nai ta naiez bear dezute ibili. Ordun bai zuen biotza pakearen eta goxotasunaren jabe dala somatuko dezute.

Okefeko bide artuta, befiz, bazabiltzate, zori-txafaren mendera bearko dezute etofi.

Ofegaitik Jaunaren arduraz gerturik daukazuten bizi bidea eza-gutzen nai-ta naiez saiatu bear dezute.

¿Nola ezagutu?...

Bizi bide bat edo beste aukeratzeko gauza ote zeraten edo ez bear dezute ikusi: goiko laguntzaz bear dezute gauza izan.

Gogoa zertarako?.. trebe al zerate bizi bide ortarako?.. Onelako doaien jabe naiz, baña beste alakoen beafian nago... auxen da nere griña nagusia... zalekeri ori ni menderatu naiean darabilkit... gazte-tandik gogo berakiñ nabiñ... afisku abetan ibilia naiz ta...

Ezkontzen banaiz onelako egin beafak... apaiz izatea aukeratzez, nere buruari gogor eta ez gutxi egin bear...

¿.....?

Zertarako gauza zeran zu badakizula?..

Baña goiko laguntzaz bear dezu gauza izan. Bizibide bat edo beste artzeko gauza zerala ikusi ondoren, goiko laguntzaz bear dezu-tela gauza izan ikusi.

Goiko laguntza ori bizi-bide bakoitzarentzat Jaunak prestatu duen grazia edo laguntza berexia dezute. Laguntza naikoa ezezik laguntza

ugaria dezute, zuzentzeko, pixkortzeko: laguntza ofek egin bear ba-koitza ondo betetzen laguntzen du; afixku batzutan gorde ere bai eta ez gutxitan bat ustegetuko litzakenean eutsi.

Ezagutzeko Jaunari eskatu bearko?

Beste biderik eztago: Otoitz egiñaz argitasuna eskatu sendota-sunare bai, eskatuko dizkitzuen eskeintza txikiak gogo onez eskein-tzeko. Bizi bidea artu bitartean, maizago Jauna artu: Beafian arki-tzen zerala aditzera berari eman.

¿.....?

Bete-beteen ezpada ere zoriona arkituko dezute zeru bidetik za-biltzatelako.

¿Zergatik uste amaika biotz gaixok samintasunaren atzamarka zofotzak somatzen dituztela?.. Goiko deiez eztabiltzalako; entzu-ki erne zeruko deia entzuteko, ez bai ziran izan.

Betiko zorionera etoriko zeraten diozute?..

Jaunak egiñak zerate; bere laguntzaz zerura etoriko zerate. Goi-ko deiez bizitza aukeratu bai, eta zuen biotza Jaun onak laguntza be-rexiz ugarituko du, bear bada mirariak ere egingo ditu zuek zerura-tzearen.

Zeren gixa berexten dezuten bidetik bazabiltzate, ordea etzaitue Jaunak utziko, baño laguntza, grazi berexi gabetanik biotza gelditu-ko litzazueke.

Zuen naimena ordun argaltasunaren argaltasunaz ez ote litzake ustegetuko?.. Bil'dur izateko da.

Gaztetxo maiteak: Zoriona ez emen ezta ere inon arkituko ez du-ten amaika, munduz-mundu badabiltz.

¿Zergatik ote?.. Beren gixa bizi diralako.

Bizi bide bateko ez danian ez doairik ez goiko laguntzarik eta... gauza onik ez. Itxuraz zoriondunak badirudite ere, amaika gixajoen biotzean naigabe eta neke ugari.

Berandu bada ere ezagutzen baitute txatxukeriz bide zuzena au-keratu etzutela.

Goiko laguntzaz ta deiaz bizitza aukeratu bai eta pakearen jabe zuen biotza izango da bide xuxenetik zoaztela ezagutuko dezutelako, eta Jaunaren laguntzaz indafa somatuko dezutelako.

Gaztetxoek: Jaungoiko gure Jaunak» *«izañai goi aldean bezela, lufean bakoitzari bizi bide berexia eratu digu.»*

Onak zerate? Artuko dezuten bizitza izango da zuentzat: Jaunak eman dizuten *«ontasun bikain-maite-maitea.»*

GALDE-ERANTZUNAK

Ama-Birgiñaren Konzezioko eguna jai al da?

«Orain jai batzuek kendu dituztela nago. Eta Ama-Birgiña Konzezioko eguna jai ote dan ikasi nai nuke. *Joxantonio.*»

Orain jaien batzuek kendu dituzten beirik eztut zurea artu arte izan. Eta ziur nago, jaiak jafi ta kendu dezazkenak, eztuela alako jairik orainaldian gureztat kendu.

Zuk aituko zenun U. G. T.'ko langileak alako jaien batzuek ez dituztela egiten. Gure Aldundietan sartu zaizkigun jaun befiak, beren mendekoak lanera bialtzen dituztela alako jaietan. Eta urteko Jairik aundienetakoak berak ez dituztela jaitako artzen. Ori guzia egia da. Baño ortik Jaiak egiaz kentzera bide luzea dago.

Kristaua kontzientiz beartzen duten jaiak jartzeko eskubidea znork daukan bai al dakizu?

Eliza osorako jai-egunak jartzea (ipintzea), aldatzea ta kentzea Aita Santuak bakafik dezaken eginkizuna da. (Can. 1244, § 1.º)

Toki berezietako jai-egunak aldi batez barkatzea Gotzai edo Obispo Jaunak ba-dezaket; Apaiz-aitak (Pafokoak) befiz bear orduan bakafai eta famili bakoitzari ere bai. (Can. 1244 § 2.º; et Can. 1245 § 1.º).

Baño ontarako premi edo estutasuna bear da izan.

Geroztik Latefiak (Estadoak) jairik eztezaioke kristauari kendu. Kristaua bere baitan beartzen duen jairik Latefiak ez dezaioke ipiñi ere.

Elizak jafirik daukan jairik Efi-agintariak ez dezakete kendu, ezta barkatu ere, Gotzaiaren baimenez ezpada.

Latefiak jaitako jai-egunak, kristaua eztute geroztik Meza entzutera edo lan egin gabe egotera beartzen, Elizaren jaiak bezela.

Onatx lurbira osoko kristauok beartzen gaituzten jai-egunak: Egubefi, Urte-befi, Azalkunde-eguna (Efege eguna), Igokunde edo Salbatore-eguna, eta Besta-befi edo Corpus-Cristi-eguna, Ama-Birgiñaren Sortze-Garbia eta Andre-Mari edo Jasokunde-eguna Ama-Birgiñaren Bizikide Jose santuaren eguna, Pedro ta Paulo Apostolu santuen eguna, eta azkeneko, Santu-guzien eguna. (Can. 1247).

Jai auek Aita Santuak bestek, eztezazke, ba, ukitu.

Ezin-bestez lana egiten duten batzuek austen dituztelako, beste kristauok eztitugu autsi bear. Bestela kontzientzi-sari gogofa etofi litzaiguke. Españiko Agintapeko luñalde guztietan Santiago-eguna ere jai dugu; beste jai-egun oiek bezalaxe beartzen gaituena. Napafoan Xabier'ko Prantzisko donearen eguna ere bai; Gipuzkoan Arantzazu'ko Ama-Birgiñaren eguna; Gipuzko eta Bizkaian Iñazio Loiolakoaren eguna; Araban befiz Prudentzi donearen eguna. Jai auek efien eskez Aita Santuak jai emanak ditugu. Eta befiro efien eskez Aita Santuak kentzen ez ditun arte, jai izango dira toki oietan bizi diranentzako.

Geroztik Ama-Birgiña-Konzezioko eguna jai da ta Jai aundienetakoa. *A. I.*

Bekar zeruak intza

ELDUAYEN A.

Moderato



Bekar zeruak in - - - tza

lufak Salbatza - ĩe - - - a A-tsik gabe o - yu - - - ka ze-goan i - gar


berdin

le - - - a A-tsik gabe o - yu-ka ze-go-an i-gar-le - - a - - -

Be tor Sion men - di - - ra Bildots e - ru - - ga-be-a Be-tor Si-on men-



- 1) Bekar zeruak intza,
Luñak Salbatzailea,
Atsik gabe oyuka
Zegoan igarlea:
Betor Sion mendira
Bildotx erugabea.
- 2) Yese'ren zustaletik
Txorten xut-xuta aziak
Gaur erakusten digu
Lore txuri-gofia;
Mariak eskuetan
Jesus jayo-beñia.



- 3) Gaur mendi-bizkar danak,
Aarikoak iduri,
Pozez jauzika dabiltz
Jauzika ta dantzari;
Ibai efekatxoak
Jesus, zuri kantari.
- 4) Oi ofen ugariak.
Lur-gañeko jendetzak!
Ofen neurigabeak
Lur zabalaren ertzak!
Aitak eman dizkitzu
Guztiak gaur zuretzat.

PATXI

Ba-zan Patxi izeneko langile gizajo bat. Ona zan itxuraz, langileia, gozoa; baño gizajo-peñoa.

Orduarte bere lanetik bizi zan ordea bear zuana baño askoz geiago etzuan ateratzen lan-ta-lan aritu-afen. Aur askotxo izan eta egiaz maite zituan, aiek bear bezela jazteko eta berai gosea ondo kentzeko gofiak ikusten zituan bein baño geiagotan.

Bein batean bere erian sozialista bat agertu zan, iztun on samara, beintzat itz-jarioa ba-zuan. Egiak eta gezufak esan zituak: munduan ondasunak gaizki banatuak daudela; aberats askok ondasunak ondatzen dituzten bitartean, beartsu asko premi gofian bizi dirala... Patxi gizajuak esaten zuan: Bai egia deko orixe.

Iztunak bere arloari jafaitu zion: Ondasunak guztien artean banatu bear dira, onela danak ondo biziko gera. Patxi'k zion: Orixen nai nitek nik...

* * *

Gure gizona lenago baño obeki dago.

Langile-etxe polita dauka orain, alegia alogera edo efentan artua: baratz polita ere etxe aldean.

Ura lanerako gogo! Izerdia mara-mara datorkio, bañan ajola gutxi. On-
doan daukan lursagar edo patata pila edefa da gero.

- Ari gera lanean, Patxi?
- Bai ari gera; goiz, goizetik ementxe ari naiz.
- Pilo edefa atera dezu.
- Bai ezta txafa: patata poliki dago.
- Ori ezta zurea: guztion artean banatu bearko dezu.

Atera dezun ori guztien artean banatu bear da: gauzak guztienak, efiarenak dira. Gaurko egunean zuk len esaten ziñuna egin bear da. Nik eztaukat patatarik, betor neretzat zerbait eta betor nere etxeko guztientzat.

—Au nerea dek, nere lanaz atera diat patata; nik lufa landu nian, nik erein, nik jofatu eta nik lufetik atera diat. Nik lufaren jabeari efenta eman-go zioat eta gañerakoa nerea dek; nere lanaren zitu edo frutua dek: nerea dek.

Afazoi beragatik gu Jaungoikoarenak izan, Jaungoikoak berak egiñak gera: beraz Jaungoikoarenak gera eta bere agindua egin eta ondo bete bear ditugu, gure indafak Goiko Jaunak nai duanerako bakafik ibili ditza-kegu.

Arbelaitz



Lekarotz, (Baztan)

LITURGIAREN ARPIDEDUNAI.—Aurtengoa oraintxe argitara eman du-
gu. Urte guztiko igandetako ebangelioak, Iraizoz'tar Polikarpo Abak euskera-
tuak. Uste dugu atsegin izango zaizuela ta beste askori ere bai. Iyeki bakoitza
bi efealez saltzen da.—IDAZKOLAK.

PANGASINAN'GO GURE MISIOA

Sual



BOST mila bizi-lagun izango ditu Sual'ek. Itsas-ate polita da. Ezker-eskuin mendi politaz inguraturik, itsas baztafean datza. Española fak agintzen zuten artean kai aomentsua zan. Luzonen ipar-aldeko salketa guzia ara zijoan eta itsas-ontzi asko sartzen ziran. Orain kaieko ate ertzak pufukaturik daude, Amerikafak kai ortara joerarik eztutelako. Ango salketa galdu da. Eta naiz afai ona ta asko izanafen, afantzaleak ezin biziz.

El-bafuan inor gutxi bizi da. Sei, amar eta amabi kilometrotara dauden auzoetan bizi dira geienak. Eta asko itsasoz besterik ez ditezke Sual berera etofi.

Lengo oroipenetako zubi erdi erori eta salketarako estalpe batzuek besterik ezta gelditzen. Kaiaren afean itsas-lapufetatik zaintzeko zegoan gaztelutxo bat. Oraingo gauza ikusgafiena, bertako ikasgu (edo ikastola), polita, zabala ta ondo ornitua.

Sual oraindik erdi-basa da. Ezkontza, gutxik egiten duten eliz-legez eta iltzekoan ere Elizakorik gabe il eta lur santurik gabe gelditzeko axola gutxi.

Geienak bataioa artzen dute Elizaz; baño ba-dira Artzai Aurkalari edo protestanteari eramaten dizkietenak eta bataiorik gabe uzten dituztenak ere.

Alegia, aufekoengandik ikasitako oiturai asko jafaitzen zaizkio batez ere Erosarioa esateko, bederatziafenak egiteko ta ilen onetan zerbait egiteko. Baño ori ere zartuenak, gazterik geienak otoitz-egiten eta Gurutze Santua egiten ere ez bai-dakite. Eunetatik bostek bakafik jakingo dute gure erlijioaren befia.

Eliza (pafokia) kaiaren afez-aufe dago. Sendo egiña da, naiko aundia. Txina'tik zetozen itsas-ontziak astuntzat zakarten afi biziz egiña dago. Baño bere orma-pareta batere estali gabe dauzka, estalia Zink'ez izar antzeko zuloz betea, aldareak bañakeraz egiñak eta sakristia solurik gabe eta eliz-jazkiak idukitzeko afomariarik gabe.

Pafokiko komenturik eztago. Lengoa Naspilaldian ondaturik gelditu zan. Eta gero efitafak beren bizitzarako artu zuten. Orain Aitak bere etxetako Dominikafen lengo sukaldea dauka. Zazpi metro luze ta lau zabal ditu. Elizaren inguruan Pafokiak baratza aundia ba-du. Ortan urte guziko naiko afoza sortzen zaio Misiolariari.

1930'ko Ufilaren (Lastailaren) 4'ean Aita Kaputxinoen eskuetan jafi zuan Gotzai jaun G. Agurgafiak. Labrador'ko elizari erantsia bezala gelditu zan. Bere zaintzale, Erasun'dar Pernando Aita. Ufengo urteko Martxoan, Muniain'go Pedro Aita, Apaiz Aitatzat aukeraturik gelditu zan. Geroztik aren eskuetan dago.

Aita oñek bere buruaren ukaldi ta nekez eta beste zenbait kristau onen laguntzaz, eliza ta etxea ere zerbait jantzi ditu. Zurezko zola elizari eman dio, korua ta jainkoiztokia edo pulpituia ere bai; etxean zurubia egin du, beko aldea auren ikastoletako gertu du; eta Elizaren afean beraldiko loretegia an jafi du.

Gogo lanetan gelditu gabe ari da. Aur txikientzat egin duan ikasguan, lenengo ikastaroa berak ematen die. Eta elizako abestiak ere antxe erakusten dizkie.

Berafen ardurapean Andre ondo-ikasi batzuek beste Andre ta Andereñoai ilabeteoro erlijiozko ikaspideak ematen dizkiete.

Kristau-ikaspidearen erakusleak igandeoro aur guztiei kristau-ikaspidea erakusten diote. Eta Artzai aurkalariari indafa kentzeko Katolikoen bil-tokia ere sorturik dauka.

Gañera lendik zetozen Jesus'en Biotzaren Alkartasuna ta Mariaren Alabena zarbefitu ditu.

Dirua ufi ta siñismena oztxo dagoalako, Elizak eztauka berari ematen zaionetik bizi-biderik. Argatik Misiolariak beste ate on batzuetara jo beaia dauka, bizitzeko ta lantegian auferatzeko.

Itz bitan: Txina'ko edo Afrika'ko misiotegi edozeñen antzeko misioa da Sual'goa. Eta bere kaltetan auxe dauka, bere bizi-lagun guziak katolikotzat agertzea, naiz esan dugun erakoak izan. Argatik lana ainbat gogofago Misiolariarentzat.

Zesareo A.

TXINA'TIK

Beste Misiolari bat lapurak ila.

(BUKAERA)



fengo-egun, afatsaldeko laurak arte etzuan ezer artu, ezta ezer edan. Lekaimeak zerbait edateko eskeintzen ziotenean, erantzuten zien: «eskefik asko, eskefik asko; eztet deus ere nai. Min oiek ondo dagozkit. Gure Jaunak ere gurutzean egafi bizia izan zuen.»

Ogei ta iru ordu era ofetan egin-da, azkenez ur-tanta bat eskatu zuen, aoa bustitzeko, egafaren egafiz ez iltzeko. Geroztik bein edo bi aldiz besterik etzuan edan.

Lekaimeak, miñak arintzeko, *morfina* eman nai izan zioten; baña berak etzuan nai izan, esanaz: «Etzaidazutela zuek kendu gero, merezimenduak irabazteko Jainkoak eman didan ereti eder-eder au.»

Bein da befiro esaten ziotelako, uzteko ta uzteko, on egingo ziola-ta, azkenez utzi zuan, esanaz: «Ongi, ongi; zuek ezpaldin badezake zute eraman

nere era mingafia, egizue nai dezutena.» Emandako sendagaiak ordeae tzion ezer onik egin eta miñak len bezin bizi iraun zioten.

Lenengo egunean gaueko zortzietan utzi zuan Aurtzaro Done-etxeko



Yuŕe'tar Julian A. eta Arbizu'ar Felix Misiolariak.

Lan au guri biali ta zortzigañeneko A. Yuŕe mando batek masalean ostiko emanik, oso txar egon zalako beria ikasi genun Uste dugu sendatuxe izango dala. Otoitz bana gure Misiolari oien alde.

neskatoak bera ikustera etortzen. Inguruan zituela, onela itz-egin zien: «Nere Jaun Jaungoikoak deitzen nau beragana. Aren biñ noa zerura. Izan zaitezte beti oitura garbikoak: eta esanekoak. Belauniko zaitezte, bedeinkatu nai zaituztet-eta. Zeruan otoitz egingo det zuen alde eta andik obeki begiratuko zaituztet.»

Umetxoak berealaxe oiuka eman zioten negafari, gogoratzen bai ziran mixiolariak maitasun ain xamufez iduki zituela bere ardurapean ainbat urtetan.

Mixiolariak eskatu zien bere alde otoitz egiteko.

Ufengo egunean Aurtzaro Done-etxeko umetxo guztiak, amar ordur egon ziran elizan bildurik, eten gabe mixiolariaren alde otoitz eta otoitz egiten. Mixiolaria, il-zorian zegoela, adi-adi zegoen otoitzak entzuten.

Miñak eramateko indafa ta atsegiña Jauna'ren nekaldian arkitzen zuan.»

«Atzo *Gurutz-bidea* egiten ari nintzala, Jaunari adiarazi nion berari jafaitu nai niola gurutze-bidean eta ofa nola gaur bertan erakutsi didan bere gogoa.» «Eskefak zuri, ene Jaungoikoa, eskefak zuri, zurekin iltzeko duin naizela erabaki bai-dezu.»

Artu zuan eskuetan gurutzea, Jauna azken aldiz artzerakoan eskatu zuan gurutze ber-bera eta esan zuan: «Aurten eztet egingo zuekin ostiral santua emen lufean. Ofain ofegatik nai ditut Jesus'en zauriak musutu.» Eta biotz aundiz Jesus'en zauriai muin egiten zien.

Anitx aldiz esan oi zituan itz oiek: «Ene Jesus ona, guztia zugatik; ez bizaidate neri kemenak eta iraupenak utsik egin.»

Lekaimeakana begia itzulirik, esan zuan: «Egunean-egunean *Gurutz-bidea* egin izan oi det; baña gaur lapufak, egin baño len, etofi zaizkit. Agur-tza deuna (efosario santua) ere bukatu gabe det, bi amafeko esan gabe bai ditut. Esan itzatzute zuek nere ordez.»

Gaberdi inguruan? ze ordu zan galdetu zuen. Amabiak zirala erantzun ziotenean: «ordu onetan, yardetsi zuan, ordu onetan Jañkoa jaio zan. Esan zagan aingeruaren agufa... Oil beti maite izan det biotz-biotzez ene Ama Birjiña eta ofa aren jaiari utzi bear dedala mundua. Ene atsegiña.!»

«Ene bizitzan inu egun iruditu zaizkit eder-edefak: lenengo, apaiz egin nintzan eguna, bigafen eskeintza aundia egin nuena eta irugafen egungo egun au. Gaurko egun au da guzietarik edefena...»

Goizaldeko laurak inguru, Lengshuitan'go mixiolari Alejo Aba iritxi zan. Othmar Abak ikusi bazuan ikusi, esan zuan: «Oil nola poztutzen naizean etofi zeralako.»

Lekaimeak (monjak) ateratzera zijoazten, uste izanez zer edo zer aferi bakafik esan nai izango ziola. Baña berak bereala deitu zituan, esanaz: «Eztet deus ere esan beafik. Ene biotzean nituan gauza guztiak esan ditut eta egin bear guztiak ere egin ditut. Pozik nago.»

«Ene Jesus, Jaun maitea, etzaitut bein ere ukatu. Zuk ere enauzu ukatuko noski Aita Betikoaren afean... Oil, eriotza, eriotza, ainbat aldiz nai izan zaitudana, askotan eta atsegiñez egiñak ditut zutaz itzaldiak, bazatozkit orain neregana. Zorionekoa naiz; poztutzen naiz, eskeintza aundia egin nuenean ere baño geiago...»

«Befiro Asis'tar Frantzisko Deunaren seme bat badijoa zerura. Ni baño lenago ere, mixio onetik beretik, badira joanak, bai ta ere zuetatik, ene afeba lekaimeak... Eta neronek bataiatutako umetxo txikiak, bataio ondo-rean bereala il ziranak, (badira lareun bat) bidera datozkit. Zeruan egin bear dedan gaurko jaia, bai jai edefa, aundia ta atsegiña neretzat..!»

Ona nolako biotz aundiz eraman oi zituan atsekabe-miñak: «Enituzke nai inorentzat min oiek, ezta neri egin dizkidatenentzat ere; barkatzen diet. Ene Jauna, barka zaiezu, zuk neri barkatu didazun bezela. Egin duten bekatu aundiaz bakafik det damua.»

Maiz Jaunari eskeintzen zizkion miñak gogoen onerako, esanaz: «Jaunak eztu nere beafik mixio onetan; baña onelako zorigaitzak etofi beafak dira, mixio au on aundikoa ta onuratsua izan dedin. Jaunari otoitz egingo diot zeruan, nere ordeztu iru mixiolari befi bialti ditzan... Nere min guztiak, ain maite dedan mixio onen alde eskeintzen ditut; bein ere enaiz aztuko beraz... Bai ta ere nere abefiaren alde, Jainkoaren legean bizi dedin beti; bai ta ere Bulsana'ko Antonio Deuna'ren lkastetxearen alde; bai ta ere mixiolari, lekaime, Autzaro Done-etxe, ta kristau guztien alde...»

Alejo Abarengana begiak itzulirik, esan zion: «Luzatu zadazu neri eskua, apaiz-eskua musutu nai det-eta.» Eta begiramenturik aundienaz muin egiten zion eskuan, inguruko guztiak, biotza ukiturik, negafez ari zirela.

Il baño lentxeago Prefekto txit Agurgafia iritxi zan Yungtxow'tik eta onen eskuetatik bedeinkazioa artu zuen.

Iltzera zijoa; indafak bazijoazkion. Ama Birjiñaren eguna azkentzera zijoala, befiz egiñalak egiñik, aingeruaren agufa esan zuan. Berealaxe, izerdia bekobi bafena zetorkiola, esan zuan: «Eriotz-izerdia da. Eriotza bada-torkit; eskefak Jauna'ri.»

Ala ere befiz, miñaren miñak eragin-da, indar befiak arturik, bet-betan bezela, jeiki zan eta mofoiak lagundurik aulkira zan. Antxe aulkian zegoela, indar guztiak baturik, jaiara aundiz asi zan otoitz au esaten: «Jesus'en Biotz deun-deuna, Zugan det nik nere uste osoa.»

Itz oek bukatzean, il zan...

Gaueko bederatzia ziran eta Jesus gure Jauna giz-aragiz jantzi zan jaiaren gaua...

Othmar A. mixiolaria Tretino'ko Kortazian jaioa zan 1890-gafeneko Ilbeltzaren 24-an. Teoloji-ikasteak Trento'ko apaiz-ikastetxean egiten ari zala, frantziskaren ordenara sartu zan Tyrol'eko lekaiderkian.

1914-gafeko Gariaren ogei ta bederatzian apaiztu zan.

1921-eko Otsalaren zortzian Txina'ra etofi zan, beste iru mixiolari lagun zituela.»

Onaño da alkizkingiak ekafi duten idazkai edefa.

Mixiolari gartsu ofen eriotza irakurtzean, ene biotza ukitu zitzaidan, mixiolari afen antzera beste mixiolari asko ere arkitu bai gera eta afisku aundiagoetan gañera.

Alarik ere orainik bizi gera eta bildufik gabe. Ezkeunden gu, nonbait, ongi eldurik zerura joateko mixiolari aundi ura bezela eta Jainkoak ezkindu-zan nai ofegatik.

Ikasiko al degu aldi guztietan Jainkoaren naiara bizitzen..!

Yure'tar Julian A. O. M. Cap.

Txina'ko mixiolaria

ERIoTZ MINGAÑA

Mingaria izan da guretzat ere, beste askorentzat bezala, Larinaga ta Afiaga'tar Bitorina, Basabe'ren Alargun zanarena.

Bilbo'ko Andre elizkoi uts au, lagunurkoaren naigabeak biotza bereala betetzen ziona zan. Elizaren onez, Misioen alde ta euskaleriaren onerako egin duen guzia eztegu lufean ikasiko.

Efoma'n Jesus'en Lagundikoak Liburu Santuen ikaskuntzarako daukaten



Ikastetxe bikaña, osotara aren emaitzaz goratua ez ba-da ere, ango Liburute-gi berdin-baekoa beintzat, ark aberastua da. Sortaldeko Ikasgua (Instituto Oriental) deritzaio Ikastetxe ofi, Efoma'ko Andre Mari Nagusiaren zelaian dago. Bai etxealde ikusgaria.

Beriz'ko Monjaen ikastetxe bat Txina'ko Wuhú deritzaion irian berak goratu zuan eta bizibidea beronek ematen zion. Gerroago Monja beroien beste alako etxe bat Ponapé'n, Sortaldeko Karolinetako ugartean. Eta beronek eusten ere zion.

Guri ere laguntzatxo bat *Zeruko Argia* sortzekoan eman zigun. Andre ofen apaltasunagatik egundano ez genuen aipatu. Bano orain bere gorapenerako ta geren esker ona erakusteko agirian aitor-tzen dugu.

Zeruko Argia'k euskaldunen begietara lenengo agefaldia egiterako, lenengo soñekoak Andre onek egin nai izan zizkion.

Argatik gure esker ona beti berekin izango du, eta gure irakurleen otoitzukafa (limosnatxo) ere izango duela uste dugu. Alaxe eskatzen dizugu. (G. B.)

Zeruko Argia'ren arpidedun zintzo Jaunaren besoetan betiko loak artu ditu:
Ondarabi'n: Joxe Ignazio Toledo. **Urestila:** Antonio Oyarzábal, Apaiza.
Otoitz bana beroien alde.

ARDO-EGINTZA



ARDOAK EGITEN DIRA

Ardotegiak Alcazar de San Joan'en

(Ciudad Real)

Loidi ta Zulaika

Urutidazkin edo Telegrafoa: «LOIDI»

ETXE ONEN LAN NAGUSIA

MEZA SANTURAKO ARDO ZURI GOZOA EGITEN DA

Iruña'n, (Mercaderes, 13) Eusebio Garicano, *Ordezkaría*.

Donostia

ARTILEZKO EUNAK ERLIJIOSOENTZAT

Juan Romeu Voltá'ren Semia.

Praile ta monjentzako eunak, artilezki edo estameñak, eun-me merinoak, kasimirezkoak, sargak, anaskoteak, eun lodiak, eta tamis'koak. Nai dan zabaltasun eta margotakoak. Margo (koloreak) iraunkorak dira.

Sabadell (Barcelona), Illa kalean, 6^{ta}. 2486^a garfen urutizkiña. «Rolana» izenean arkitzen du urutizkiña.

Praile ta Monjari eskatzen diegu, eskatu nai duten eun-gaiaren zatatxo bat bialtzeko afen. Eta zein margo ta zein neufitakoak edo zer zabaltasun eta loditasunekoak nai dituzten adierazteko. Ofela agudo ta zuzen bialduko zaiote eskatzen digutena.

Luzera aundia emango diezu zere eliz-argizariei,
argizari bereziak erosten ba dituzu.

Kintin Ruíz de Gaunaren Semeari

GAZTEIZ'EN (Vitoria-España)

Ortarako eskatu berari «Kapitel Gauna».

Itxaso bestealdera ere bigaltzen dira.

N O G A T



(Afatoi-iltzekoa)

«Nogat» afatoi-iltzekoa edozein sagu ta afatoi-mota ondatzeko biderik erosoena, lastefena ta eragingarriena da. Paketea 50 zentimotan saltzen da ondoko etxe auetan.

Iruña'n: Aginaga'ren Botikan, Nabaskues'en Botikan, Ardanaz anaien drogerian; *Tafalla'n,* C. Sanchez'en botikan; *Carcastillo'n,* Ituralde'ren botikan; *Santakara'n,* R. Molins'en botikan; *Eriber'i'n,* Vives'en botikan; *Ilunber'i'n,* C. Rivera'ren botikan; *Sangosa'n,* J. Cres'en botikan; *Villava'n,* C. Ofizialdegi'ren botikan; *Calahorra'n,* J. Palacios'en botikan; *Tudela'n,* Heredia'ren botikan; *Lizarran,* Estella'n), Albizu'ren drogerian, L. Garcia'ren botikan; *Alfaro'n,* Luis Oliver'en botikan; *Gares'en,* Juan Alcalde'ren botikan; *Bilbo'n,* Barandiaran'en etxean; eta beste botika ta drogeria nagusienetan.

Especialidad Farmacéutica del Laboratorio

Sokatarg

Montaña, 79 y Fomento 53. Teléfono 564 S. M.

BARCELONA

Salgai dauzkagun liburuak

Nere Laguna, Aranaz'tar Lezo'ko Jose A'k. egiña. Iru liburu dira. Iruetan urteko igande guzietako ebangelioaren azalpentxo bat dakar. Euskera adikor eta xamufean ebangelioaren adibide eraz-eraza egiten du. Igandetako ebangelioen itzaldiaz landara zenbait jaietarako itzaldiak ere ba-dakizki, Ama-Birjiña Sortze-Garbikoaren, San Jose'ren, Andre Maria'ren Jasoerakoa eta Domine Santu egunekoa.

Liburu bakoitza 5'na laurleko edo pezetaz eta irurak 12 laurlekoz ematen dira.

Kristau-Ikasbidearen I'ko ta II-garen zatiaren Azalpena Intza'r Damaso A'k. egiña. ZERUKO-ARGIA'REN lenengo urtetan an argitara emana da. Azalpen guzia, itzalditan egiteko eran emana dago. Siñismenaren egi bakoitza ta Ai-

Aita Kaputxinoen misioetako Abestiak. Auek eresi gabe argitara emanak daude. Bakoitza txakur aundi batean salgai.

ta Gurearen eskabide bakoitza itzaldi labur, ordu laurden batekoan esateko eran jarria. Kristau-lkasbidearen erakusleai ere ongi datorkie, berak aditzeko ta aufai argi-xamar adierazteko. Laurleko edo pezeta batean saltzen da.

Prantzisko Deunaren Bizitzatxoa. Ataun'dar Bonifazio A'k. egiña. Asis'-ko Prantzisko santuaren maitale ta seme-alaba Irugafendar guziak beren etxetan on luketen liburua. Liburu au bi margo-koloretan oso egoki argitara emana dago. Eskaletxoaren bizitza lau itzetan gogorazten zaigu liburutxo ortan. Ortaz landara begietatik sartzen zaigu irakurtzen deguna, 119 orialdetan ogei ta bi edergafi ba dakazkilako. Aurai saritako emateko ere egokia da. Laurleko bat eta erdiz saltzen da.

Euskal Irakaspidea Arigarai'ek egiña ta Ataundar Bonifazio Kaputxinoak beritua. (Gipuzkoa'ko euskalkian.)

Euskal irakaspide au, beritua, zuzendua ta jakingafi askotan ugaritua izan da.

Izkuntzak ikasteko gaur erabiltzen dan irakaspideari dafaikio Ataun Aitak. Ariketa asko ikaskai bakoitzaren ondoren. Eta atzetik oraindik Itzulgaiak ipintzen ditu. Onela ikasleak ikaskai bakoitzeko itz beriak eta aditzaren erabilketa beria, efaz ikasi lezake.

Aditzaren jira biretan lengo irakasletatik berezi egin da. Iketazkoa, zuketazkoarekin batu egin du, bigafen lagunean. Euskaldun jator batek sustraiz ta bere jira-biraren zuzentasun ta zofoztasuna ikusteko egoki dago.—Erdaldun euskera ikasten asten danak ere, beritze onen izpidea edo arazoia bereala ikusiko du. Baño zuketako bataren eta askoren jira-bira bereixtea ezta efaz egingo. Bein oartuz gero, ta iketazkora oitzen asi, bi erabilkerak, naiz zuketazkoa, naiz iketazkoa laxtefago edo batean ikasi dezazke. Irakasle batek ikaslerik motelenari ere, bereixkuntza ori garbi egiten erakutsiz gero, efaza ta maitagafi egelngo zaien Irakaspidea irudi zaigu.

Irakaspide oni Ataun Aitak beste Geigafi eder bat sortu dio. Geigafi ori *Ariketa* eta itzulgai ugariago nai dutenarentzat egin du; batez ere Irakasleen efaztasunerako. Irakaspidea bakañik, 6 laurlekoz saltzen da. *Geigafiarekin* zazpiz.

Loretégi beria. Prantzisko Elizondoar A. Kaputxinoak egiña. Txikiren mafazkiz jantzia. Liburu Santuetafik artutako edo egileak asmatutako gertaera eta ipui oso egokiak.

Or kontatzen ditun gertaera ta ipui bakoitzaren ondoren berari dagokion ikaspide egokia ateratzen du.

Kristau etxe edozeñetako, naiz zafak, naiz gazteak eguneroko bizitzarako asko ikasteko, oso egokia. Euskera ain xamur, gozo ta efitara du!

Aufai eta gazteai saritzat emateko bere bizikoa. Iru laurlekoz saltzen da.

Prantzisko Santuaren Irugafen Ordenako Ikasbidea. Kristau Ikasbidearen antzera galde ta erantzupenetan Irugafendañentzat eginik dago. Beroien Lege edo Efigla oso argi ta egoki itz gutxitan ortxe adierazten zaielako. Bakoitza iru txakur txikiz eta eunka amar laurlekoz saltzen da. Irugafendar guziak bear lukete.

LITURGI-URTEA. EGUBERI TA AGERKUNDE ALDIA

Egubefi eguna.—Eliza egun zoragafi onei: begira egon da. Aurreko eguneko Bezperetan esaten digu «Eguzkia sortzean Kristo efregea, ezkongai antzean bere gelatik ateratzen ikusiko degula.»

Gau ontako Maitiñak asten ditu: «Kristo jaio zaigu: atozte jauretsi (adora) dezagun.» Lenengo irakurgaietan: «Aurtxoa jaio zaigu, semea eman zaigu eta bere soin gañean efregezkoa: eta bere izena Arigafia, Onugilea, Jaungoikoa, Sendoa, ondoreko eunkietako Aita, pakezko Efregea» Isaiak aurretik zion bezala.

Afats ontan eta gauerdian Jesus jaio zalako, Elizak bere umen erdira garai berean dakar Jesus. Ortarako gauerdiko Meza. Aitak bere Semea biali digu: Jainko-Semea gure senide egin zaigu: Espiritu Santuak egin du onen gauza arigafia! Jaungoiko iru Lagunen aintzat, iru meza ematen ditu Apaiz bakoitzak egun ontan. Iru Meza auek Jainko-Semearen iru jaiotza dakarzkigute burura: Gau ontan Ama-Birgiñagandik jaio zan: bere graziaz kristauen biotzetan jaiotzen da: Aita Betikoaren baitan betikotasunean lendik jaioa. Mezetan Jesus'en jaiotza Luka donearen Ebangeliotik kantatzen zaigu. Irugarfenean Joan'en ebangeliotik Jesus'en jainkozko jaiotza.

Eguberitako Elizaren jaia ta pozak Agerkunde edo Efege ondoreko zortziagarfeneraño dirau.

Urte-befi eguna.—Jesus'en Jaiotzaren zortziufena ta bere mozketa eguna da. Egundontan ixuri zun Jesus'ek bere odol piskat gure maitetasunez lenengoz; egundontan eman zitzaion lendik aingeruak Maria'ri esandako izena; egundontan Elizak aitoritzen eta jaietzutzen du Ama-Birgiñaren Garbitasun iñoiz autsi gabea.

Agerkunde edo Efege eguna.—Jai on! *Epiphania* esaten zaio ta euskeraz Agerkundera esan nai du; au da Jaunaren agefaldia. Egundontan, arteko efi siñestegabeai, izarak zuzendurik, agertu zitzaielako. Jai au len-lenengo mailekoa da. Egundontako bigafen Bezperetan Elizak dio: «Iru mirariz ornitutako egundontan santua degu au: Gaur Magoek izarak estalpera eramane zitun: ura ardotan gaur biurtu zan eztaietan: Kristo Jordanen gaur bataiatu nai izan zun Joan'en eskuz.» Baño lenengo mirariari dagokio Jai au. Sortaldetik etofitako Magoak iru esku-erakutsi egin zizkioten Jaiobefiari: inzensua, Jainkotzat ezagutuz: ura, efrege zalako: eta mira, gizon ilkoña zalako. Lufeko efi guziak gaurkoan abiatu ziran Elizarontz, Jerusalem santu ontara. Argatik gaurko Epistola, Isaiagandik artua asten da: Zutitu ta argiz bete zaitez Jerusalem.» Ebangelioak Magoen etofera esaten digu.

Agerkunde ondoko I igandea.—Jesus, Maria ta Jose'ren Jaia. Lufean izan ditekene sendi (familiarik) oberenaren Jaia. Benedito XV-garfenak sortu zun jaia au. Egundontan Elizak esaten digu: Kristo, Jaungoikoaren Seme, Maria ta Jose-ren menpekoa, jauretsi (adora) dezagun, atozte.» Gauza arigariagorik! Jaungoikoaren Semea bere aur batzuen menpean ogei ta amar urtez bizitzen; aien esana guzietan egiñez ibiltzen!

Agerkunde ondoko II-garfen igandean, len Jesus'en izenaren Jaia izaten zan. Orain Jesus'ek ura ardo biurtuz egin zuen mirariaren ebangelioa daukagu egundontan. Mirari ori Ama-Birgiñaren eskez, mirariak egiten asteko garaia bete baño len egin zun. Jesus'ek ofela beregan siñisten dutenen eztaiak onesten ditu. Emekitasuna edo pazientzia izatea eragiten digu Epistolak; pakea eskatzen da otoi-tzean.